



## ADA LOVELACE LEHIAKETA

Ingeniaritza gizonezkoen jardueratzat hartzen den arren, historiari begiratzuz gero agerian geratzen dira emakumeek egindako ekarpen asko. Informatikaren garapenean ekarpenak egin dituzten emakumeei omenaldi gisa, merezi zuten aintzatespena jaso ez zutelako, eta lehenengo programatzailea jaio zenetik aurtengo abenduaren 10ean 200 urte betetzen direlako, hona hemen *Ada Lovelace lehiaketa*. Lehiaketaren gaia honako hau da: **emakumezkoen partehartzea teknologian**.

Aurkez ezazu zure lantxoa, **nahi duzun hizkuntzatan zein formatutan** (bideoa, bertsoa, margolana, posterra, ...).

**Lanak aurkezteko epea:** Abenduaren 1a

**Zer eta nola bidali:** Lanarekin batera izenburua, egileen izen-abizenak, e-maila eta kontaktuan jartzeko telefono bat (adin txikikoek eranskina sinatuta ere bidali beharko dute). Lana ikus-entzunezko formatuan egonez gero, bideo-plataforma baterako esteka bat bidali ahalko da (Youtube, Vimeo, ...).

**Kategoriak:** Bi kategoria egongo dira:

- 1. kategoria: 18 urtetik beherakoak
- 2. kategoria: 18 urtetik aurrerakoak, 18 barne

**Baldintzak:**

- Proposamenek lehiaketaren gaiari erantzun behar diote.
- Lehiaketan edonork parte har dezake lehiaketaren antolatzaileek zein mahaikideek izan ezik.
- Proposamenak originalak izan behar dira, hau da, inori plagiatu edo kendu gabekoak. Horren susmorik balego, autoretza frogatzeko eskatu ahalko da.
- Lanek honako creative-commons lizentzia izan behar dute:



**Reconocimiento – NoComercial (by-nc):** Se permite la generación de obras derivadas siempre que no se haga un uso comercial. Tampoco se puede utilizar la obra original con finalidades comerciales.

**Lanak nora bidali:** [adalovelacesaria@gmail.com](mailto:adalovelacesaria@gmail.com) helbidera

**Saria:** Diploma bat eta Teknologian gastatzeko 100 euroko opari-txartela. Saritutako lana abenduaren 14a baino lehen jakinaraziko da.

- Abenduaren 14an (11:30etatik 13:00etara) egingo den ekitaldira etortzea derrigorrezkoa da saria jaso ahal izateko.
- Aurkeztutako lanen kopuru edota kalitatea dela eta epaimahaikideek saririk ez ematea erabaki dezakete.



informatika  
fakultatea



facultad de  
informática



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
The University of the Basque Country

**AMAREN, AITAREN, edo TUTOREAREN\* BAIMENA ADINGABEKOEK ADA LOVELACE LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.**

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN LANAREN IZENBURUA: .....

.....andreak/jaunak, adinez nagusi,.....zenbakidun NAN duena,  
helbidea.....n  
dutenak,.....telefono zenbakiarekin, .....  
adingabekoaren (.....urte dituen eta ..... e-maila duena) ama / aita (edo tutore),  
eta beraz, legezko ordezkari, den aldetik.

**ADIERAZTEN DUT**

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIOT, BERARIAZ, nire.....alabari/semeari, Ada Lovelace  
Lehiaketan parte hartzeko, emakumezkoen partehartzea teknologian gaia izanik, eta lehiaketaren oinarriak  
onartzen ditut.

Ados nagoela adierazteko hori guztia sinatzen dut

.....n, 2015eko azaroaren ..... an

\* Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute. Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.